



URTEKARIA
barruan
2018
hilez
hile

...eta Kitto!

2018-XII-28

1082 zkia.



Hasiera besterik ez!!!



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiaren kirurgia
Begi lehorraren tratamendua



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844 • www.clinicarecalde.com

CRF AMOSTEGI

ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA

* **ERREHABILITAZIOA**
- Osakidetza - Aseguruak

* **FISIOTERAPIA PERTSONALIZATUA**

Esku terapia - Osteopatia / INDIBAterapia (Radiofrekuentzia) /
Txizaren inkontinentzia (emakumeak eta gizonak)

E.P.I.: Azal-elektrolisi intratisularra / K-LASERterapia / Puntzio lehorra

* **HAURDUNEN OSASUNARENTZAT
ETA ERDIONDORAKO DENETARIK**

- Amatasunerako prestakuntza:

Haptonomia eta Metodo tradizionala (taldeka/banakakoa)

- Episiotomiaren prebentzioa, Txiza-inkontinentzia, Prolapsoak: EPI-NO + Masajea

- Lunbalgien, Sakroilialgien, Coxigodini... esku-tratamendua

- Pelvis-zoruaren balorazioa erdiondoan

- Tratamenduak txizaren inkontinentzia eta/edo inkontinentzia fekalerako, zesareen
orbaintzat, episiotomiak, perineoko mina, etb.

- Antzutasun funtzionalaren tratamendua

* **MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

- Zelulitisaren tratamendua kabitazio ultrasonikoaren eta elektrolipolisisaren bitartez

- Eskuzko drainatze linfatikoa (DLM) eta/edo presoterapia

- Elektrodrainatze linfatikoa eta baskularra (zainetako itzuleraren areagotzea)



Muzategi, 2 behea Tfnoa/Fax. 943 20 34 46 info@crf-amostegi.com www.crf-amostegi.com

OPARITU IRRIBARRE BAT ZURE BURUARI,
KAFE BATEK BALIO DUENA BAINO DIRU GUTXIAGOAGATIK

INPLANTEEN TRATAMENDU OSOA
(INPLANTE+KOROA+ERRADIOLOGIA FROGA)
22,60€ HILABETEAN

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



943 36 63 77

Lasarte-Elgoibar-Tolosa

*Finantziazioa: 1.085 euro, 48 hilabeteetan ordaintzeko. Sustapena onartzea erakundeari dagokio.

RPS233/13

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarteak.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.200 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA




GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTZA)

TUTULUMENDI



IDURRE
IRIONDO

Datorren astean
GIDA KOMERTZIALA
jasoko duzue zuen buzoietan.

Hurrengo alea
urtarrilaren 11n

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MATRAKA. - Karraka, egurrezko tramankulua; Aste Santuan muskarik eta kanpairik ezin zan jo, eta karrakia erabiltzen zan mezetara deitzeko, eta espirituetatik babesteko. "Kanpaien ordez, matrakia entzutzen zan".

Gogaikarria. Sorgina, zentzu figuratuan. "Sekulako matrakia dozu alabia".

astean esanak

"Komunikabideen bitartez ikusten den torturak hunkitu egiten gaitu, baina ez gaitu hunkituko estalia geratzen denak, arrazoi sendoak izanik ere susmatzeko tortura erabiltzen dela. Hunkitu egingo gara errugabe bat torturatua izan dela ikustean, baina nekez hunkituko gara espantoneki krimen lazgarriak egin dituen norbaitek jasandako torturen aurrean. Errugabeek dagokienez, sakonago hunkituko gaitu hurbileko sentitzen ditugun pertsonak jasandako torturak eta hotz utz gaitzake urrunekoak"

(XABIER ETXEBERRIA, DEUSTUKO UNIIBERTSITATEA)

"Ez ditugu espezieak epaitzen, espezieak ez direlako onak edo txarrak. Eukaliptoak gure ekosistemetan zelan jokatzan duen epaitzen dugu, eta errealtatea da eukaliptoak kaltegarria dela Euskadin. Eukaliptoak gure lurzorua lehortzen eta pobretzen ditu, bertoko espezieak kanporatzen ditu eta, horren ondorioz, beste eremu batzuetara hedatzen da. Hori bai, orain dela 2.500 urte pagoa ere espezie inbaditzaileen zerrendan sartu beharko zen. Karpatoetatik ekarri zuten garai hartan, eta tokiko hainbat espezie gure baserrietatik baztertua eragin zuen haren etorrerak"

(RAMON BECERRA, POLITIKARIA)

"Sentimenduek beren lekua dute gorputzean. Oro har, zenbat eta gertuagokoak izan bi sentimendu, orduan eta gertuago daude mapan ere. Batzuen tokia erraz ezagutzen da: gosea sabelean, egarria eztarrian eta arrazoa buruan. Beste batzuen, berriz, ez da hain senezkoa: elkartasuna eta aitortza (sentimendu positiboak) eta errua eta etsipena (negatiboak) bihotzean sentitzen dira gehienbat, baina baita buruan eta sabelean ere. Gauza bera gertatzen da guraria eta nekearekin; aurkakoak izan arren, leku berean sentitzen dira, gorputz osoan. Norbere buruaren kontrola buruan eta eskuetan sentitzen dira"

(ANA GALARRAGA, ELHUYAR ZIENTZIA)



Urtebarrixari ongietorrixa Urkon egitteko aukeria

Klub Deportiko Mendi Taldekuak Urko puntara igota hasiko dabe 2019. urtia eta jende guztia animau nahi dabe eurekin bat egittera: urtarrillaren 1ian, 09:00etan Depor parian alkartuko dira, handik abiatuta danak alkarrekin Urkora igotzeko. Urteroko martxan, 10:30xetan talde argazkixa etarako dabe mendi puntan. Bestalde, urtiari agur esateko, San Silbestre herri-lasterketia egingo da Aixolan hillaren 31n. Umiak 16:15etan hasiko dabe antxixiketaldixa eta nagusixak, barriz, 16:30xetan.



Gabonetako Loterixaren azken bosgarren sarixetako bat Eibarren saldu da

Gabonetako Loterixaren zozketan, azken bosgarren sarixetako bat izan zan 02.308 zenbakixaren zati bat Eibarren, Isasi kaleko 2xan dagan administraziñuan saldu eben. Zenbaki horren 15 serie Donostian eta Bilbon saldu dittue eta, Eibarren bezala, Tuteran, Azpeitian, Basaurin eta Iruñean dezimo solte batzuk saldu dira.



40 korrikalari alkartu zittuan Gabontrail arrakastatsuak

Eguraldi, ibilbide eta giro bikaiñaz gozatu eben abenduaren 24an Gabontrail 18xan parte hartu eben mendi korrikalarixak. 40 lagun inguruk hartu eben parte lasterketan eta ibilbidia arazo barik bete eben. Urtero lez, Kalamua puntan argazkixa etera, Kalamuako Parlamentuan txanpaña eta turroiarekin topa egin eta Santa Kurutzetik Eibarrra bueltatu ziran.



LORADENDA

San Juan, 1
943 20 33 29

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak
- Enkarguak etxera

ITZULPEN

**ERA GUZTETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelerara,
gazteleratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.**

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.eus

info@gerritek.net
www.gerritek.net

**SOLUZIO
INFORMATIKOAK**

**Marka guztietako zerbitzu
teknikoa eta salmenta**

**Neurrira egindako
software-aren garapena**

Gerritek
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6 Tel: 943-033892



Jaso dabe Eibar BHI-ren otarra

Eduardo Jauregibarriak eruan dau Eibar BHI (Jardiñeta) ikastetxiak zozketatu daben Gabonetako otarra, 14.094 zenbakixarekin. Zorionak!

Izarne Laskurainek eruan dau ...eta kitto! Euskara Elkartearen Gabonetako otarra

Aurreko asteko barixakuan emon zetsen ...eta kitto! Euskara Elkartearen Gabonetako otarra aurten go irabazliari: 08.743 zenbakidun rifa kalian erosi eban Izarne Laskurainek eruan eban 2.000 euroko bali-xua dakan otar ederra. Sarixa El Corte Inglesian bertan jaso eban, ahiztiak eta gurasuak lagunduta. Zorionak eta on egin!



Banatu dittue dendarixen 40 otarrak

Aurreko astian, abenduaren 20xan banatu zittuen Gabonetako 40 otarrak Eibarko Dendarixen Alkartekuak. Aurreko urtiotan egindakuen bidetik, aurten be erosketak egittian alkartiaren txartelarekin ordaindu eta sarixa irabazi daben bezerueri emon detse otarra, holan euren fideltasuna eskertu eta saritzeko.

Urki taldiaren zozketako irabazliak

Txus Alzaga Urki taldeko presidentiaren eskutik jaso eben sarixa rifako irabazliak: otarra 1.980 zenbakixari egokitu jakon eta urdaiazpikua, barriz, 1.786 zenbakixari. Zorionak!



· Eibarren egindako markak
· Moda
· Etxeko osagarriak
· Yoga:
"Yoga + Jarrera-Adimena"
"Jarrera berregokitzea"
· Pilates Essential:
"Lur eta aireko fusioa"
· Urtebetetzak
· Formakuntzak
· Dastatzeak
· Hitzaldiak
· Ekitaldi korporatiboak

Eta askoz gehiago!

hello@helmethouse.es
943 849 310

BLAS ETXEBERRIA 1,
COLISEO ONDOAN!

helmet house
CONCEPT STORE

[f](#) [i](#) @helmethousestore

moments with a story behind



Agur Olentzero!

Urteroko moduan Olentzero bisitan etorri jakun abenduaren 24an. Goizian Urkizutik Untzagara birtartian kantu-kalejiran ibilli eta gero, oindiok be indar nahikua euki eban gabian etxe guztietan oparixak banatzeko.

Jaiotza ipiñi dabe Azittaiñen

Azitaingo Andre Mariaren Jasokunde Parrokixan jaiotza ipiñi dabe aurten eta, ikusi nahi dabenak, abenduaren 30ian eta urtarrillaren 1ian eta 6xan izango dau horretarako aukeria, 11:00etako mezan. Jaiotza eder hori ez eze, parrokixako arduradunak gogorazi nahi dabe Azittaiñen daguala munduan bizar barik daguezen hiru Kristoetako bat, ustez XIII. edo XIV. mendekua izan leikian 1'82 metroko irudi bitxixa, eta eibartar guztiak gonbidatu nahi dittue Azittaiñera juan eta artelan bixak ikustera.



Erregien Kabalgataren zain

Urtarrillaren 5ian egingo dabe Hiru Erregien Kabalgatia, Eibarko Musika Bandak lagunduta. Herriko kaliaz ziherkatuko dittuan kalejira ikusgarria 19:00etan hasiko da, Untzagan. Halanda be, aurretik, 17:00etatik aurrera dantza ikuskizuna eskinduko dabe Ipurua Dantza Garaikidea, Eibaroko Balleta eta Ipurua Gimnasia Erritmika taldiak, Ipurua kiroldexigan.



GOIKO-LUZ-ek

2019 zoriotsu eta ifusioz betea opa dizue

OTAOLA, 13
943 20 08 83

ORDUTEGI
 BERRIA:
 ASTELEHENETIK OSTIRALERA
 10:30 - 18:30

goikoluz@yahoo.es
 www.facebook.com/goikoluz

EGUERDIAN ZABALIK

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

C A P I

www.capiestetica.es

BERRIA!!!
BEGI
 ingurunerako
 tratamendua

LIFTING
 tratamendua

IA BETIRAKO
MANIKURA
ETA PEDIKURA

BETILE
LUZAPENAK
/ LIFTING



MAITE ARROITAJAUREGI,
musikaria: "Mursego jolas moduan hasi zen eta ogibide bihurtu da"



MARIANO FERRER,
kazetaria: "El Kiosko de la Rosi moduko zeozer behar dugu egunero salatzeko zure lanarekin ezin bizi ahal izatea zuzena ez dela"



AMAIUR MAYO,
errugbilaria: "Emakumezkoen errugbiak etorkizun polita dauka Eibarren"

Urteari errepassoa



Ohiturari jarraituz, Urkon hasi zuten urtea eibartar askok.



Udalak Vildosola txaleta eraitsi zuen. Espazio horretan parkea eraikitzeko asmoa dauka.



Erregeetako loteriaren bigarren saria saldu zen Errebalgo 2. zenbakidun administrazioan.

2018arekin **NAN** eta **pasaporte**a egiteko aukera zabaldu zen udaletxean. **Alfako langileek greban** hasi zuten urtea. Zorte gehiago eduki zuten beste batzuek, izan ere **Erregeetako loteriaren bigarren saria** tokatu zen Eibarren. **Erregeen kabalgata**, ordea, **bertan behera** geratu zen euriarengatik. **Gu-reak** tailerrekoek urteroko bazkaria egin zuten. Eskualdean aterpetxearen beharra zegoela adierazi zuten hainbat eragilek. **Josetxo Anitua** *Cancer Moon* taldeko musikari eibartarra omentzeko dokumentala aurkeztu zuten, *'Atrapados por la serpiente'*. 1967an estatu mailan lehen 'vending' makinak izan zirenak jarri zituzten Eibarren eta datu hori gogoratu zuten hainbatek. **Jubilatuek pentsio duinen alde borrokan** hasi zuten urtea (eta horrela jarraitu zuten urte osoan zehar). 27.474 biztanle ginen urtarrilean Eibarren. Urtero lez, **Lagun Taldekoek** dantza eta musika jaialdia egin zuten Hezuntza Esparruan. **Roberto Etxaburu** PSE-EEko zinegotzia izandakoa hil zen. **Mekolako etxea** (Vildosolako txaleta) eraitsi zuten. **Gimnasia artistikoko Ipurua klubak** hiru hamarkada bete zituen. Abenduan hasitako ekimenari jarraituz, urtarrilean beste hiru **argazki-zahar handi** kokatu zituzten herriko kaleetan.




MIKEL BELATEGI IRAZABALBEITIA – 2018ko abenduaren 21ean hil zen –

"ZUREKIN bizitako **uneak**
GUREKIN geldituko dira betirako.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko"

ZURE KUADRILLA






LOREA ARAKISTAIN,
PuntuEUSeko
komunikazio
arduraduna: "Makinei
 ere euskaraz hitz egitea
 garrantzitsua da"



BEGOÑA RIVAS,
argazkilaria: "Irudi
 batek ez du hitzen
 premia eduki behar,
 dena esan behar du"



EMILIO AIASTUI,
jubilatua: "Pentsioak
 horren bajuak izateak eta,
 horren ondorioz, eros-
 ahalmena galtzea gizarte
 osoari eragiten dio"

San Blas eguna ospatu zen, baita Gas-
 teizen ere. Gero, **Santa Agedaren**
 txanda izan zen. **Depor taberna** berriz
 zabaldu zuten. **32,3 milioi euroko au-**
rrekontua onartu zuen Udalbatzak
 EAJ-PNV eta PSE-EEren aldeko botoe-
 kin. **Aratosteak goiz** ospatu ziren eta
 koko-dantzak San Blas egunean egin
 ziren. **Mikel Gorosabelek** bakarkako
 bidea hasi zuen 'Barne basoan barna'
 diskoarekin. Jose Prieto '**Pepe Txikie-**
na' hil zen Allarizen (Ourense). **UniEn-**
counter, teknologia berrien inguruko
 ekimena, egin egin zen Unian. **Osoro**
anaiek, Pello eta Txominek, Espainia-
 ko neguko triatloi txapelketa irabazi zu-
 ten maila absolutuan eta juniorretan,
 hurrenez hurren. **Iker Rokandiori** hiru-
 garren gradua ezarri zioten Zaballako
 espetxean 60 egun egin eta gero. Un-
 tzagako jubilatatu etxekoek **Isabel Ba-**
rambio omendu zuten bere 105. urte-
 betetzean. Orain dela hiru urte desa-
 gertutako Eibarko emakume baten gor-
 pua aurkitu zuten Castron. **Feli Santil-**
lan eta Felix Kruzelaegik, Eibarko se-
 nar-emazte adintsuenek, omenaldia ja-
 so zuten Untzagako jubilatuen etxean.
Odei Jainagak Espainiako errekorra
 hautsi zuen xabalina-jaurtiketan eta
 80,64 metroan ezarri zuen marka ber-
 rria. **Antzerki Jardunaldien 41. edi-**
zioa jarri zen martxan Jose Sacristan,
 Iñaki Miramon, Gurutze Beitia eta Ima-
 nol Ariasen hitzaldi-solasaldiarekin.
 Aholku Batzorde Juridikoak **Errebalgo**
auzian Udalak hartutako erabakia be-
 rretsi zuen. Ipuruako zaletuek babesa
 eskaini zioten Alfako langileei Eibar-
 Bartzelona partiduan. **Azитай inguruan**
luziak egon ziren azken hilabeteetan
 jausitako euriaren ondorioz. **Miguel**
Gallastegi pilotari ohiak 100 urte bete
 zituen. **Elurrak herria** zuritu zuen hila-
 bete amaieran. **Eibar-Sahara** Eguna
 primerako giroan ospatu zen.



Koko-marru eta koko-dantzariek euria eta elurra izan zuten lagun Mandiola eta Aginagako baserrietatik egindako kalejiran.



Hainbat hilabeteetan jauzitako euri kantitate handiak luziak eragin zituen Azitain inguruan.



Eibar eta Bartzelonaren arteko partiduan Alfako langileei babesa eskaini zieten Ipuruako zaletuek.

IÑAKI REZOLA
HARATEGIA

Urte Berri On!!

Errebal, 23 - Tel. 943 201 729

BOLINTXO
OKINTEGIA
GOZOTEGIA

Eguneroko
ogia



☎ 943 20 40 66 (Errebal, 9) ☎ 943 20 36 06 (Legarre Gain)



TERESA AGIRREAZALDEGI, Kazetaritzan doktorea:
"Hemen adierazpen askatasuna batzuek bakarrik daukate"



JUAN SANCHEZ VALLEJO, psikiatra:
"Minbizia gaintitzen dutenek enpatikoago eta baikorrago heltzen diote bizitzari"



JONE BENGOA, M-8ko kartel irabazlea:
"Emakumeak edozein artetan irudikatzea interesgarria eta garrantzitsua da"



Pagatxa elkarteak 25 urte bete zituen aurten. 170 lagun bildu ziren urteurren berezia ospatzeko.



Astelena frontoiak lehia historikoa jaso zuen, Emakume Master Cup txapelketaren finala.



Martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean, greba feminista egin zen.

Emakumearen Nazioarteko Eguna izan zen protagonista martxoan. Martxoaren 8an greba feminista egin zen eta emakumeek kaleak hartu zituzten. Gero erakusketak, hitzaldiak eta beste hainbat ekintza egin ziren hilabetean zehar. **Pagatxa elkarteak 25 urte** bete zituen eta bazkari batekin ospatu zuten. Alfakoek 100 egun bete zituzten greban otsailaren 7an. **VIII. Euskara-ren Transmisioari buruzko Mintegia** jaso zuen Portaleak, eta euskarari buruzko hainbat ikerketa, gogoeta, kezka eta egitasmo partekatu ziren. **Odei Jainaga** xabalina jaurtitzailak Espainiako txapelketa eskuratu zuen. La Sallekoek **Proega Eguna** egin zuten Argentinan martxan duten proiekturako dirua batzeko. Amesti eta Guridi tabernek **IV. Gilda Lehiaketa** irabazi zuten. **Zuhaitz Egunean** 40 arbola landatu zituzten euripean Iturburu ikastolaren parean dagoen udalaren lur-sailean. **Paula Lamarain Astigarraga** raketista hil zen. Martxoaren 17an jendetza irten zen kalera pentsio duinak eskatzera. Martxoaren 24an, 20:30etik 21:30era, **Planetaren Ordua** deitutako ekimena egin zen WWF erakundeak bultzatuta, eta ordubetez argiak itzali zituzten erakunde, enpresa eta herritarrek. Astelena frontoiak **Emakume Master Cup**-aren finala jaso zuen.

Larragest  353 zbk.

F. Calbeton, 22-24

INMOBILIARIA
690 610 715

ASEGURUAK
943 200 795

...eta kitto! Euskara Elkarteak 25 urte bete zituen eta jaialdi mundiala egin zuen Coliseoan ospatzeko. **Pertsona Nagusien XXV. Hamabostaldia** egin zen eta denetarik ekintzak egin zituzten hamabost egunetan zehar. **Euskal Herriko Itzuliko etapa erabakigarriak Eibarren** jokatu ziren. Eibarren amaitutako etapa, azkenaurrena, Omar Frailek (Astana) irabazi zuen eta Arraten, azken etapan, zena Enric Masentzat (Quick-Step) izan zen. Primoz Roglicek (LottoNL-Jumbo) irabazi zuen Itzulia. Egun bat geroago, bestalde, Valenciaga Memorialaren txanda izan zen, baina amaitzeko 40 km falta zirenean bertan behera geratu zen, istripu baten ondorioz lasterketa anbulantzia gabe geratu zelako. **Tatuaje solidarioen ekimenarekin** gaixotasun arraroe-kin lotura duten proiektuei laguntzeko dirua batu zuten Astelena frontoian, tatuaje bakoitzarengatik 50 euro ordainduta. Eibarko epaitegiak Alfako zuzendaritza zigortu zuen greba eskubidea urratzeagatik. Eibarren egin zen **II. Errepublikaren aldarrikapenaren 87. urteurrena** bete zen eta, urtero bezala, hainbat ekintza egin ziren herrian. Federico Rodriguez Cabezonek Udal Artxiboan emandako hitzaldian adierazi zuen Gerra Zibilean **O'Donnell-en jausi zen bonbak** ez zuela eztanda egin. **Juanita Unzueta**ren omenez herriko dantzariak egindako ikuskizuna jaso zuen Coliseoak. Bar Txokok foball-zale-tuen liga txapelketa eskuratu zuen.



FELIX ELKOROIRIBE, jubilatua: "Jubilatu berriek beste gauza batzuk behar dituzte"



MARKOS GIMENO, palindromista: "Euskarazko palindromoak egitea ezinezkoa zela pentsatzen nuen"




ANAIZ FUNOSAS, Bake Bidea: "Konbentzimendu haundiak eta arriskatzeko politikoak ekarri zuen ETaren armagabetzea"



...eta kitto! Euskara Elkarteak jaialdi mundiala eskaini zuen Coliseoan bere 25. urteurrena ospatzeko.



Enric Mas izan zen garaile Arraten Euskal Herriko Itzuliaren azken etapan.



Federico R. Cabezon ikerlariaren arabera O'Donnell-en jausi zen bonbak ez zuen eztanda egin.





Afilialu

www.ccoo-euskadi.net



euskadiko langile komisiokoak

CCOO-ek Euskadin elkarrizketa sozialaren eta negozio kolektiboaren alde egiten du

Ifar kale, 1 Tel. eta faxa. 943 20 84 35 eibar@euskadi.ccoo.es



MARIA JOSE TELLERIA,
Gipuzkoako Foru
Aldundiko Kultura
zuzendaria: "Sortzaileek
dirulaguntzak lortzeko beste
modu bat da META!"



MIREN NARBAIZA,
musikaria: "Musika
komunikazio-bide unibertsala
da. Ez da askorik behar
musika entzuten bidaiatu
ahal izateko"



ANDER GISASOLA,
arte irakaslea: "Diseinua
eta irudiarekin lotutakoak
indar handia daukate
gaur egun"



Eguraldi bikainarekin ospatu ziren Santa Kurutzeko jaiak.



*Tantanez Tantan, eskuz esku, urez
betetako gantxila eraman zuten
eibartarrek Urkizutik Untzagara.*



*Olagarrorik ez zen falta izan
Urkizun ospatutako XXXV.
Dia das Letras Galegas jaietan.*

Langileen Egunak hasi zuen maiatza eta herria mobilizatu egin zen langileen eskubideen aldeko eskaerak egiteko. **Jaiak** egon ziren nonahi: XXXV. **Dia das letras Galegas** jaia ospatu zen maiatzeko lehen asteburuan; **Santa Kurutzeko** jaiak ospatu ziren asteburu berean, giro eguzkitsuarekin; **San Isidro** eguna ospatu zen Arraten; eta azken asteburuan **Euskal Jaia** ospatu zen. **Ixuan** hotela zabaldu zuten. **Herriko balkoi dotoreen**ek sariak jaso zituzten. Maiatza **argazkilaritzaren hilabetea** izan zen, Klub Deportiboak antolatzen duen Argazkilaritza Maiatzean ekimenarekin. Erakusketak, hitzaldiak, tailerrak eta beste hainbat ekintza egin ziren. **Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Egunaren** harira kontsumo arduratsuen aldeko kanpaina egin zuten Egoaziak, eta La Sallek Bidezko Merkataritzaren aldeko Ikastetxea ziurtagiria jaso zuen. Ametsa tabernak III. **Gin Tonic lehiaketa** eskuratu zuen. Errebalgo proiektuari '**Errebal plazia**' deitzea erabaki zuten. **Tantanez Tantan** ekimena egin zen hilaren 19an 'Ni ere tantan' goiburuekin, eskuz esku gantxila pasatu zuten herritarren Urkizutik Untzagara. Giro ederra egon zen eguraldia lagun. Coliseoak **Martin Zalakain** ikuskizun arrakastatsua jaso zuen, Kezka Dantza Taldekoak tartean. 172 eguneko greba eta gero, **Alfakoak adostasunera** ailegatu ziren.

Baimendutako Harategia
Gure Kalitatea

MUGIKA Urkizu, 18
943120194

HARATEGIA

URTE BERRI ON!

Giokela


Iturburuk Kirola Euskaraz Bizi olinpiaden beste edizio bat jaso zuen. Maiztean hasitako bideari jarraituz, **Konsumo Arduratsuaren III. Azoka** antolatu zuten Egoaziak eta Aldatzen boluntario taldeak. **Gure Esku Dagok** Donostia, Bilbo eta Gasteiz batu zituen eskuz esku. Giza-katea Eibartik ere pasatu zen eta festa polita egin zen herrian. Udal Artxiboak **idazkera eta idazkien tailerra** jaso zuen, letren bitartez historiari errepaso entretenigarria emanaz. Berbalagunek Hondarribian ospatu zuten **Mintza Eguna**. **Ez Dok Festek** milaka lagun bildu zituen Unben ekaineko lehen asteburuan. Berri Txarrak, Toundra, Belako, Nerabe eta beste hainbat talde entzuteko aukera egon zen. **Urkiko jaiek 20 urte** bete zituzten eta euria ere lekuko izan zen, nahi baino gehiago. **Kanpoko igerilekuen** irekitzarekin udari ongi etorria eman zitzaion. **Jubilatuak udalekuetara** joan ziren San Asensiora (Errioxa). Udalak **pentiodunen eskaerak babesteko mozioa onartu** zuen. Erortzeko egoeran eta abandonatuta dagoen **Sagartegieta jauregia** Ondarearen Zerrenda Gorrian sartu zuen 'Hispania Nostra' Ondare Kulturaleta Naturalaren Defentsarako Erakundeak. UEUn **Udako Ikastaroak** hasi ziren, eta Markeskuak 15 ikastaro eta 3 jardunaldi jaso zituen. Garajes Garciak mendekua hartu eta Bar Txokori Kopako finala irabazi zion foball zaletuan. Eibar Rugby Taldeak ez zion urteroko zitari hutsik egin eta **XVI. Garagardo Jaia** egin zuen Untzagan. **Sanjuanetan** jai-giroak hartu zuen herria. Kontzertuak, kale-ikuskizunak, barrakak, suzko erroberak, txosnak... asteburua izanda jende ugari etorri zen herriko jaiez gozatzera. Hilaren 28an **LGtBI eguna** ospatu zen eta ortzadarraren koloreak nagusitu ziren herrian.



JUAN JOSE FLORES, Casa Galicia: "Niri oso harrera ona egin zidaten eta primeran sentitu naiz beti hemen. Inoiz ez dut eduki elkarbizitza arazorik"



ALEJANDRO CADENAS, AGISAS elkarteko presidentea: "Bideak zabalduz elkarrekin integrazteko eta euren lana ikustarazteko proiektua da"



VIRGINIA FERNANDEZ, abeslaria: "Taberna-zuloetan gauzez jotzen ohituta gaude, nahiz eta Marlangoren hasierako taldea ere izan garen eszenatoki txukunetan"



Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotu zituen Gure Esku Dagok antolatutako giza kateak, eta Eibartik ere pasatu zen.




Milaka lagun bildu ziren Unben egin zen Ez Dok Fest jaialdian.



Sanjuanak asteburuan ospatu ziren eta, eguraldia lagun, jai-giro bikaina egon zen herrian.


JOSE VICENTE PEROSANZ
M^a LUISA SOROA
MARTA VALERA
IRATXE URIBEZUBIA
EGUREN & ASOCIADOS
ABOGADOS
Urtzaile, 1 EIBAR egurenyasociados@gmail.com
 TEL. 943 204 194
 FAXA. 943 820 006


PUBLI RESA
 objeto publicitario
 Armagin, 3-5 beheak
 merchandising
 serigrafia
 lanerako erropa
publiresa@publiresa.com 943 701 497 / 615 799 419



XABIER ORUESAGASTI,
saxofoi-jolea:
"Ustekaberekin ikasi
ditudan kontzeptu eta
teknikak oso baliagarriak
izan dira"



AITOR BUENDIA,
kazetaria: "Gastronomiaren
inguruko hainbat telebista
saioen antitesia da
'La Ruta Slow'"



ANABEL MENDEZ,
argazkilaria: "Erretratoen
argazkilaritza profesionala
amaitu egin da"

Arraterako bidean, Itzioko aparkalekuan zeuden auto batzuei zuhaitza erori zitzairen gainean. Untzagako jubilatuen etxeko fatxadaren zegoen argazkia kendu egin zuten, bero egiten duenean negutegi-efektua eragiten zuelako. Udalak aho batez onartu zuen **presoen urruntze politikaren aurkako mozioa. 40.** Amañako jaiak ospatu ziren eta, aurten, Jose Antonio Alberdi 'Goma'k urte hauetan jaien antolakuntza lanean egindakoaren berri eman zigun. **San Kristobalen ere jaiak** izan ziren. Denetariko ekintzak antolatu zituzten eta **Lambretta Eibar XV.** **Kontzentrazioarekin** bat egin zuten. **Unbeko foballeko zelaien belarra aldatu** zuten. Toribio Etxebarria kalean Eibarko **Udako Merkealdien Azoka** jaso zuen, eta herriko 32 dendak euren produktu eta eskaintzak kalera atera zituzten. **28.** **Toribio Etxebarria Sariak** banatu zituzten Teknikerren egoitzan. Oihana Lasuen eta Gorka Litagoren 'Adarabar' aisialdirako proiektuak irabazi zuen '**On Ekin'** lehiaketa. Jatorri sahararra duen **Ljadra Said Hanuha** eibartarra atxikita eduki zuen familia Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduan hainbat hilabetez, baina ihes egin eta Euskal Herrira bueltatu ahal izan zen. Auzitegi Konstituzionalak ez zuen onartu '**swap'** produktuen inguruko Udalaren errekurtsioa. **Euskal Herriko Gazte Okestrak** urteroko egonaldia egin zuen Hezkuntza Esparruan. Abuztuan **Sansalbadorrak** eta **Andra Mari jaiak** ospatu ziren San Salvador auzoan eta Azitainen, hurrenez hurren. Herrian, gainera, **udako zineaz** gozatu ahal izan zen. Aukera polita mundu osotik etorrita uda Eibarren pasatu zuten bisitariarentzat.



Eibarko Udal Bozeramaileen Batzordeak aho batez onartu zuen presoen urruntze politikaren aurkako mozioa.



Amañako jaien 40. urteurrena ospatu da aurten. Jai berezia ere izan zen irailean Untzagan.



Antzerkia, dantza, kontzertuak, Lambrettak... eskaintza ugari izan zen San Kristobalgo jaietan.



Zorionak eta Urte Berri On eibartar guztiei

Tfnoa. 943 20 22 39
Mobila. 617 16 33 82
egolan.eibar@gmail.com

AHOLKULARITZA eta GESTIOA

EGOLAN


Julian Etxeberria 7, 7-C




Ikastetxeek kurtso berria hasi zuten. Kasu batzuetan, aldaketekin, Sansaburrun bezala, itxura berriarekin ekin ziolako ikasturteari. Mendira begira, **pinuak gorri-gorri** ikusi genituen gaixotasun baten ondorioz. Udaz geroztik **Krabelinen bizi diren mojekin** egoteko aukera izan genuen. Eta Arrateri buruz berbetan, jende ugari igo zen bertara **Arrateko jaietan**. Arrate Eguna asteburuan izan zen eta eguraldiak lagundu zueenez, jai-giro aparta sortu zen Arraten. Gero, **Legarreko jaien txanda** iritsi zen eta, ondoren, **Sanmiguelak Aginagan**. Abuztuko atsedeneren ondoren, jubilatuek asteleheneroko mobilizazioei ekin zieten berriz irailean. Langile bat larri zauritu zen Matsariko Alca tailerrean izandako lan istripuan. Untzagak **automobil klasikoaren erakusketa** jaso zuen. Barrena kalean **'Agur Etxebeste!**' pelikularen hainbat eszena grabatu zituzten. 40 urte baino gehiagotan San Agustín parrokiako arduraduna izan zen **Don Balbino Aierbe** hil zen. Beste eibartar batek, **Jon Gorosabelek**, mendian galdu zuen bizia, Kantabrian hain zuzen ere. **Txontako informazio bulegoa** ireki zuten, biztanleei Eusko Jaurlaritzak eta Udalak banatuko dituen diru-laguntzen informazioa emateko. Amañako jaien 40 urteetan zehar herri-tarrek eskainitako laguntza itzultzeko asmoz, **Amañako jai-batzordeak ikuskizun berezia** antolatu zuen Untzagan. Hainbat kontzerturen artean, Raimundo Amador gitarra-jole ezagunaz gozatzeko aukera egon zen. Debabarreneko VII. **Aste Ekologikoa** hasi zen irailaren azken egunean.



BERNARDO IBARRA, Arrate Irratia: "Arrate grabatuta gelditu zitzaidan eta soldadutzan Don Pedro Gorostidiri elkarrizketa egitea pentsatu nuen"



ALEX ROBLEÑO, e-kiroletako aditua: "E-kirolen industria gora doa eta ikusten ez duenak trena galdu dezake"



NEREA ARIZNABARRETA, aktorea: "Gehienetan ez diogu geure buruari espaziorik ematen eta, eman izanez gero, gauza politak irten daitezke"



Gure mendietan nagusi diren intsignis pinuek kolore gorria hartu dute onddo batekin gaixotu ondoren.



Arrateko Amak eguzkipean egin zuen elizatik gurutzerainoko bidea.



Karmelita Samariarrek moja etxea zabaldu zuten Krabelinen.

GAUR
 ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA
 KONPONKETA
 ELEKTRIKOAK

ATEZAIN
 AUTOMATIKOAK ETA
 BIDEO-ATEZAINAK

Zuloagatarren 9, behea
 Telefonoa 943 20 62 40

carmen@egaur.com
 Faxe 943 05 69 23

Laguntza Teknikorako
 Zerbitzu Ofiziala

EIBARSAT

Elektrodomestiko txikien mikrouhinen
 konponketa, musika kateak,
 sukaldeko menajea,
 elektrodomestiko txikien piezak,
 eta abar...

IFAR KALE 8
 Tel. eta Faxe. 943 20 67 17
 20600 EIBAR



JULEN ZABALETA,
marrazkilaria:
"Marrazkigintza benetako pasioa izan da niretzat"



MIKEL GAZTELURRUTIA,
musikaria: "Bizitza bera,
mugimendua bera,
inprobisazioa da"



ARANTZA ETXANIZ,
udal-idazkaria izandakoa:
"Politikarien eztabaidak
eta jendeak nahi duena
askotan ez datoz bat"



Eibarko Ospitalak atek zabaldu zituen Otaola kalean. Hiru fasetan zabaltzen joango dira zerbitzuak.



Julen Teran eta Asier Cuevas izan ziren nagusi euripean jokatu zen VI. Asier Cuevas herri-lasterketan.



Ardiak kalera irten ziren Debabarreneko Gazta Astean.

Eibarko Ospitalak atek ireki zituen. Urriko lehen zapatuan, azken 25 urteotan bezala, **Sagardo Eguna** egin zuen '...eta kitto!' Euskara Elkarteak eta urteurren berezia izanik, egitarau zabala prestatu zuen. **CD Urki taldeak 40. urteurrena** ospatu zuen. **Arrate hotela erori zenetik 50 urte** bete ziren. Inoiz baino lehenago egin ziren **Jardunaldi Mikologikoak**. Eibar KE-ko akziodunek **kirol-hiria Mallabian** egitea aukeratu zuten, Areition hain zuzen ere. **Liburu eta disko azoka** hartu zuen Untzagak. Peruko nekazariei laguntzeko **V. Bazkari Solidarioa** egin zen 'Jana ez da txantxa' goiburuekin. **Julen Zabaleta** marrazkilariak Gure Balioak saria jaso zuen. **VI. Asier Cuevas herri-lasterketan** euripean egin zuten antxitketan parte-hartzaileek. Andres Indurainen argazki bildumak irabazi zuen **Indalezio Ojanguren Ohorezko Saria**. Debabarreneko **Gaztaren Astea** egin zen hirugarrenez. **Danel Zenarruza-beitia** Eibarko EA alderdiko lehendakari ohia hil zen. **Eibarko emakumeen aztarnak** jarraitzeko erakusketa jaso zuen Portaleak. **Debabarreneko 27 odol-emaile** omendu zituzten, tartean hainbat eibartar.



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Bidebarrieta 20

Tlfno: **943 20 16 69**

facebook.com/oberenaharategia





MIREN MANDIOLA, doktorea: "Zenbat eta gizarte `garatuagoa` izan, orduan eta zahartuago batean bizi gara"



JOSE MARI ARRIZABALAGA, Eibar KE: "Gozatzekoa da lpuurara bidean taldearen kamiseten prozesioa ikustea"



VIRGINIA BASURTO, Gizalde: "Gizarte parte-hartzailean sinisten dugu eta horretarako bidea da boluntarioritza"

Zientziaren Astea egin zen herrian eta maila handiko hizlariak etorri ziren gurera. **Asier Errasti Film Laburren Lehiaketak** era maila handiko laburmetraiak ekarri zituen. Juanma Canoren 'No escupas hacia arriba' lanak irabazi zuen Eibarko onenaren saria. Klub Deportiboko mendi batzordekoek **Euskal Herriko 100 mendi ederrenak** bazten dituen webgunea prestatu zuen. **Gaztainerre** ospatu zen hileko bigarren astelehenean eta Galiziako Etxekoek **Magosto** jaia ospatu zuten. **Eibar.org**-k Rikardo Arregi kazetaritza saria jaso zuten, eta **Ahotsak.eus-ek** Abbadia saria. Joko-arazoekin laguntza emateko taldea hasi zen biltzen San Andres elizako lokaletan. **Bizilagunak** ekimenak jatorri ezberdinetako eibartarrak bildu zituen mahai baten inguruan eta jaki ezberdinak dastatu ahal izan zituzten. '...eta kitto!' Euskara Elkarteak 151.200 azukre poltsa banatu zituen herriko 87 tabernetan '**Euskeraz Primeran!**' sloganarekin. **Gastronomiak protagonismo handia** izan zuen azaroa. Debegesak Tripontziak ekimen gastronomikoa jarri zuen martxan; III. Berakatz Zopa lehiaketa egin zen; XV. Eskolarteko Bakailao Txapelketa; Eibarko Hiria II. Pintxo Txapelketa; XV. Pintxo Lehiaketa; XXVI. Bakailao Txapelketa; eta XVI. Txistorra Eguna. Gainera, Eibarren Slow Food komunitatea sortzeko lehen pausoak eman ziren eta gonbidatu handia ekarri zuten, Andoni Luis Aduriz sukaldaria. DBHko ikasleek **eusLider** egitasmoa landu zuten hizkuntza ohiturak aldatzeko asmoz. Eta horrekin lotuta, hilaren 23tik abenduaren 3ra **Euskaraldia** egin zen Euskal Herri osoan, hizkuntza ohiturak astintzeko ariketa soziala. Ahoiziek, Belarriprestek eta Bihotzgoxoek hamaika egun berezi bizi izan zituzten. Tartean, **San Andres jaiak** ospatu ziren. Eguraldi ederrarekin eta asteburua ate joka, jendetza irten zen kalera animaliez, azokaz, dantzaz eta musikaz gozatzeko.



Klub Deportiboko mendizaleek "Euskal Herriko 100 mendi ederrenak" proiektua garatu dute, deporeibar.com/mendi-ederrenak helbidean.



Sukaldariek zuzenean sukaldatu zuten Eibarko Hiria II. Pintxo Txapelketan.



Maila handiko laburmetraiak hartu zituen Asier Errasti film laburren lehiaketak.

TXOKO
 TXOKO

*Gero alai
 Gabon Zaharreen!*

**UNTZAGA PLAZA, 10
 20600 EIBAR**

Iker Elorza Beitia

Tel.: 608 30 85 26

e-mail: legalbide@gmail.com



Finka kudeaketa • Aholkularitza juridikoa • Abokatua




ANDONI LUIS ADURIZ,
sukaldaria: "Mundua aldatzea gure esku dago, pentsatzen duguna baino gehiago"



JUAN ANTONIO PALACIOS, argazkilaria:
"Jainkoen antza hartzen diet harri-jasotzaileei"



ELENA LAKA,
Euskaltzaleen Topaguneko presidentea:
"Euskal Herriko historian inoiz ikusi ez duguna ikusi dugu Euskaraldiarekin"



Unibertsitate Laboralak 50. urteurrena bete zuen abenduaren 17an.



Astelena frontoiak jendez gainezka egin zuen Gipuzkoan Gazte Tour jaialdian.



Errebalgo bizilagunek harridura eta galdera ikurrak erabili dituzte euren ezinegona azaltzeko.

Abenduaren hasierarekin herriko merkatariak **Gabonetako kanpaina** hasi zuten baita ere. Hilaren 3an, astelehena, **Euskararen Eguna** ospatu zen eta egun bat lehenago, domekan Bazkarialdia antolatu zuen Eibarko Euskalgintzak Untzagako karpa erraldoian. Euskaraldiari amaiera ona emateko egin zen bazkaria eta Euskararen Egunean mosaiko batekin esan zitzaion agur Euskaraldiari. Hori bai, hau hasiera besterik ez da. Bi kirol-talde berriren jaioztaren lekuko izan ginen. Batetik, **Arima Galduek**, jigger taldea. Eta bestetik, **Takuai**, txakur-kros taldea. Hilaren 15ean **Gipuzkoan Gazte Tour** jaso zuen Astelena frontoiak. Parrapas, Bago!az-eko protagonistak, Twin Melody eta DJ Txurru egon ziren bertan. **Markos Gimeno** diziplina anitzeko artista hil zen. **Eibar-Sahara** elkarteak liburu azoka jarri zuen Untzagan. **Pentsiodunek** manifestaldiekin amaitu zuten urtea. Eta Egogain gerontologikoko langileek ere euren lan baldintzen eta zaintzen dituzten nagusien eskubideen aldeko borroka egin zuten. Errebalgo Plataforma, Andirao baserritarren elkarte eta hainbat alderdi politiko **Errebalgo gaiarekin** kokoteraino daudela erakutsi zuten. Ego Ibarra batzordeak **Niceto Muguruza** medikuaren 'Nociones generales de higiene del obrero siderúrgico' eta **Toribio Etxebarriaren** 'Viaje por el país de los recuerdos' liburuak berrargitaratu zituen. **Unibertsitate Laboralak 50 urte** bete zituen. **Davide Cerchi** Urbat waterpolo taldeko entrenatzailearentzat da XXIV. Eibarko Kirol Sarietako sari berezia. Eta **Gabonetan** EibArt azoka, Truke eta Doako azoka, Haur Parkea, barrakak, Olentzeroren kalejira, kontzertuak... giro epelarekin esan zaio agur 2018 urteari.

Ibarkurutze, 5
943 20 37 15

altzariak
koltxoak
eta sukaldeak

● **tartak**
● **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
egoluz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

IGELTSEROAK

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun


Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK



TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
TAILERRA: ERREKATXU, 3^{an}
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com
ERAKUSKETA
Arikitzaneko Zubian
eta faxa: 943 203 903

ARKITEKTOAK

olatx etxeberría martinez ARKITEKTOA
olatx@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberría

arkitektura, hirigintza eta peritazioak
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoa

Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com



ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS
E.I.T.
ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA
info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 50
AJT Zihurtasuna S.L.p.
Barrena, 6 - behea ezk.

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia
baita toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-

605 713 168 943 744 019

GARBIKETAK

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Arragueta, 18-2.D



www.kolorlan.com 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396



Gipuzkoaren etorkizuna gure desio guztien batura da.

Eskatu desio bat eta pentsatu desiatzen duzunean mundua aldatzen hasten zarela. **Desio baten atzean helburu bat dagoelako.** Eta helburu baten atzean, errealitate berri bat. Beraz, pentsa ezazu: zeintzuk dira etorkizunerako zure desioak?

Desioak etorkizunez beteta daude. **Eta desio horiek guztiak batuta eraikiko dugu Gipuzkoaren etorkizuna.**

Etorkizun On.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz

#niredesioa



Nerea Gorriti
(aktorea)

"Eskolan egiten genituen antzerkiak antolatzea asko gustatzen zitzaidan. Hori zen ikasturteko gauzarik onena niretzat!"



Jende Xumea *(boluntario taldea)*

"Boluntariotzan lan egin nahi izanez gero, proiektu mordoak dago eta boluntarioak beti dira ongiatorriak"



Saray Garzia
(dantzaria)

"Ez dut ikusten nire bizitza dantzatik aparte edo dantzarekin zerikusia duen zerbait egin barik"



Jon Martinez
(Booktuberra)

"Booktuberrak liburu bati buruzko gomendioak ematen ditu eta irakurzaletasuna pizten du"



Ane San Martin
(Ipurua taldeko gimnasta)

"Gurea ez da nesken kirola bakarrik; izan dira eta badira praktikatzen duten mutilak"



Eneko Baz,
(kulturista naturala)

"Men's physique modalitatean gorputz naturalagoak bilatzen dira"



Marina Ereña
(trikitilaria)

"Triste banago ere, trikitixak poztu egiten nau"



Pedro Alfonso Vilas *(break dance dantzaria)*

"Arrisku-saltua ikasteko kuriositateak eraman ninduen Break Dance egitera"




Adrian Martinikorena
(xakelaria)

"50 urtekoen aurka jokatu eta irabazteko gauza garela ikusteak asko aberasten gaitu gazteok"



Fabian Castro
(txakur-kroslaria)

"Nire bizitza txakurrak dira"



Sofia Machin *(abeslaria)*

"Modan dagoen abesti bat igotzen dugu astero Youtubera"



Andrea Covadonga
(aktorea)

"Beti dantzan eta abesten ibiltzen ginen ahizpa eta biok etxean"



Xabier Badiola
(Batxilergo artistikoko ikaslea)

"Jende asko eta oso interesgarria ezagutu dut dibuko eskolan"



Marina, Ainitze eta Jone
(Ipurua Dantza Garaikidea)

"Askok gustatzen zaigu egiten duguna eta gu beti gaude prest horrelako ekitaldietan parte hartzeko"



Naroa Kareaga
(zaldi-zaletua)

"Zaldiarekin jauzi egitea da gehien gustatzen zaidana"



Idoia Lahidalga (KEZKA dantza)
"Martin Zalakainen bizitza dantzaren bitartez kontatzen dugu"



Gure Esku Dago - Gazteak
Erabakitzeko eskubidearen aldeko mugimendua da Gure Esku Dago eta pisu handia duen arrazoa da.



Eva, Ander eta Aitor (La Salleko Bidezko Merkataritza)
"Hemengo familiek egiten duten lanari balioa ematen dio 'Bidezko Merkataritzaren aldeko ikastetxea' ziurtagiriak"



Ikel Ulazia eta Nerea Martin (Lanbide Heziketako ikasleak)
"Gazte asko ez dira kontziente euskarak lan-munduan duen garrantziaz"



Malen, Eider, Nerea, Miren eta Nagore (Saharako umeentzako udalekueko begiraleak)
"Esperientzia berri bat bizi nahi dugu udalekuean"



Lara Salguero (Eibar BHI-ko logotipo berriaren egilea)
"Logotipo berria egiteko hezkidetzaren koloreak erabili ditut"



Maiden, Jone eta Jone (Jaixak Herrixak Herrixandako)
"Denon laguntza beharrezkoa da jaiak aurrera ateratzeko"



Irene Hernando (antzezlea eta antzerki sortzailea):
"Berlinen antzerkia egiteko eta sortzeko modu berriak ikasi ditut"



Andrea Garcia (marrazkilaria)
"Jendearen hitz politikak entzuteak demaseko poza ematen du"



Jose Etxaniz (boluntarioa Perun)
"Perura joan eta gustokoen dudana egitea zoragarria izan da"



Eibarko Koro Gazteko Beñat, Iker, Oihane eta Garazi
"Abesteaz gain, alde batetik bestera dantzan eta mugitzen ibiltzen gara"



Miren Loiti eta Maddalen Galdos (Thailandian boluntario)
"Bizitzeko beste modu batzuk badaudela ikusteko aukera izan dugu Thailandian"



Jessica Ots (Arima Galduek Jugger taldeko kapitaina)
"Kirol mistoa da, generoak ez du axola"







Markel Ruiz (argazkilaria)
"Nire kabuz ikasi dut argazkiak egiten"



Kalaka Gonzalez (atleta)
"Fondoko lasterketetan argi eduki behar duzu zer nahi duzun"

**Eskerrik asko
 2018an
 "Eibar Klisk batean" atala
 egiten lagundu
 diguzuen
 argazkilaria guztiei**





BERBETAN eta **ONGI ETORRI BERBETAN** mintzapraktika eta elkarbizitarako egitasmoen barruan jarduera mordo antolatu ditu ...eta kitto! Euskara Elkar-teak 2018an. 2002an jaiotako Berbetan programan 42 talde daude euskera praktikatzeko, eta 2015ean jaiotako Ongietorri aldiz 3 talde euskara eta euskal kulturaren ikuspegitik harrera eta elkarbizitza lantzen. Aste-roko saioetaz gain, era askotako jarduerak egin dituzte programetako kideek: irteerak, ikastaroak, solasaldiak, munduko janariaren tailerrak...

BERBETAN-en barruan **“Dendariak eta ostalariak Berbetan”** ere badago, EUSKERAZ PRIMERAN! goiburuarekin mertakaritzan eta ostalaritzan euskararen erabilera bultzatzen duena. Martxoan “Gilda Lehiaketa”-ren 5. edizioa egin zen, eta “III. Gin-Tonic Lehiaketa” apirilko bi asteburutan. Urte amaieran, EUSKARALDIarekin batera, 1.200 azukre kilo eta 8.000 ahozapi banatu ditu ...eta kitto! Euskara Elkar-teak Eibarko 87 tabernatan **Euskeraz Primeran!** goiburuarekin tabernetan euskararen erabilera sustatzeko. Bestalde, azken edizioetan egindakoaren bidetik, eraketan ere euskararen erabilera bultzatzeko mahaia jarri du ...eta kitto! Euskara Elkar-teak Toribio Etxebarria kalean beherapenen azoketan, otsailean zein uztailean. Euskarak, zalantza barik, ondo pasatzeko ere balio duelako, **“Barixakuan Jolasian”** ekimenen parte hartzen duten guraso eta haurrak hilabeteko azken barixakuetan bildu dira ...eta kitto!-ko lokaletan.

2017ko abendutik 2018ko abendura bitartean **“Hamaika berbaldi”** ekimena eraman du aurrera **EIBARREN AKEBAIK**. Hainbat hitzaldi, tertulia edota mahainguru egin dira Eibarren euskararen aldeko diskurtsoa berritzeko, euskaraz bizi nahi dugunok ahalduzko, eta euskaraz bizi ez den jendearengana iristeko. Bestalde, otsailean hasi zen kaleratzen EIBARREN AKEBAIKo Kultura mahaia **Eibarko Euskararen Agenda** eta, horri esker, hilero Eibarren euskaraz gozatzeko aukera eskaintzen diguten ekitaldien berri izan dugu, modu erakargarri eta erosoan.

Martxoaren 7an egin zen **“Euskararen Transmisioari buruzko Mintegia”**, Portaleko Areto Nagusian, ...eta kitto! Euskara Elkar-teak antolatuta. Aurten-go edizioan agerian geratu da euskararen biziberritzean funtsezkoa dela maitasunez jardutea gazteekin eta etorkinekin, eta diskurtsoetatik haratago praktika berriak behar dituela euskarak.

Mundu digitalean barra-barra erabiltzen diren ingelesezko berben **pareko egokia euskeraz** asmatzeko lehiaketa antolatu zuten Eibarko Udalak, Eibarko AEK-k eta Udal Euskaltegiak. GORROTER izan zen boto gehien jaso zituena, “hater” adierazteko.

Apirilaren 22an, **...eta kitto! Euskara Elkar-tearen 25. urteurrena** modu berezian ospatu genuen Coliseo Antzokian, elkarteko bazkide, lagun eta kolaboratzaileekin batera. Une hunkigarriak bizitzeko aukera izan genuen ekitaldian izan ziren herriko dantzari, abeslari eta musikariei esker. Modu horretan ...eta kitto! Euskara Elkar-teak eskerrak eman nahi izan die 25 urte hauetan bidelagun izan dituen bazkide eta inguruko guztiei. Ez da hau Euskara Elkar-tearen urteurren bakarra izan 2018an: urtero urriaren lehen zapatuan ospatzen den **SAGARDO EGUNAK** 25 urte bete ditu 2018an.



‘Hamaika Berbaldi’ ekimenaren barruan, euskarak Eibarren izan duen bilakaeraren ikuspuntua eskaini zuten Serafin Basaurik, Luis Alberto Aranberri ‘Amatiño’k, Leire Narbaizak, Nerea Barruetabeñak eta Beñat Laskurainek.



Euskerari buruzko ikerketa, hausnarketa, egitasmo eta esperientziak partekatu ziren Euskararen Transmisioari buruzko 8. edizioan.



...eta kitto! Euskara Elkar-tearen 25. urteurrena ospatzeko jaialdia ospatu zen apirilaren 22an Coliseo Antzokian.



22 tabernak hartu zuten parte IV. Gilda Lehiaketan. Argazkian, Amesti eta Guridi tabernetako ordezkariak sariak jasotzen, ..eta kitto! Euskara Elkar-tearen lokaletan.



...eta kitto! Euskara Elkar-teak martxan jarritako Munduko Janariak egitasmoak jende ugari bildu du tailer desberdinetan.



Maiatzean, Tantanez Tantan-ek jende mardoa bildu zuen Untzagan. Amaierako ekitaldian Euskaraldiaren aurkezpena egin zen.



Uda aurretik aurkeztu zen Eibarko Euskaraldiaren Hamaikakoa. Eibarren 3.700 lagun baino gehiagok hartu zute parte azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskal Herri osoan egin zen Euskaraldian.



Irailaren 18an egin zen Berbetan egitasmoaren ikasturte berriaren aurkezpen ofiziala. Hurrengo egunetan, proiektua auzoetan aurkeztu zuten.



...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen Sagardo Eguna 25 urte bete ditu aurten.

Eskolatik lan mundura euskaraz! mintzodromoa egin zen, lehen aldiz, Untzagan, maiatzaren 9an. Lanbide Heziketa egiterako orduan ikasle gehienak gazteleraz matrikulatzen direla eta, gai horrekin arduratuta antolatu zuten mintzodromoa Armeria Eskolak eta Uni Eibar-Ermuak, Udalarekin eta ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean.

Maiatzaren 19an hitzordu bikoitza izan genuen. Batek **TANTANEZ TANTAN**, bi urtetik behin Eibarko Euskalgintzak antolatzen duen giza katea. Aurreko edizioetan bezala, oraingoan ere gantxila eskurik esku Untzagaraino eraman zuten eibartarrek. Eta, bestetik, oraingoan euskeraren olatuak bat egin zuten udazkenean izan dugun Euskaraldiarekin. Untzagan izandako ekitaldian, Euskaraldiaren ikurrak izan diren ahobizi, belarriprest eta bihotzgoxo rola ezagutzeko aukera izan genuen egun horretan.

Uda aurretik, gure herrian "Euskaraldia, 11 egun euskaraz" ekimena ezagutzera emango zuen **EIBARKO HAMAIAKAKO** aurkeztu zuen Eibarren AKEBAIk. Bestalde, Irailaren 17tik 27ra ikusi ahal izan genuen internet bitartez **MIREN&MALEN BIDEOBLOGA**. Euskeraz bizi gaitezkeela ikusteaz gain primeran pasatu genuen Miren Gisasola eta Malen Illarramendiarekin. Ondoren, Euskaraldiari lotuta Eibarren zer egingo zen azaltzeko bilera informatiboak egin ziren herriko azoetan.

Hizkuntza ohiturak aldatzeko **eusLider egitasmoa** lantzen dihardute DBHko ikasleekin. AEK-Ahize hizkuntza zerbitzuak, Eibarko Udalak, AKEBAI plataformak eta ikastetxeek elkarlanean dihardute EusLider egitasmoan. Proiektuak gazteen hizkuntza ohituretan eragitea eta euskara gehiago erabiltzearen aldeko aldatzea sustatzea lortu nahi du, eta Eibarko BHIko ikastetxeetan DBH 3. mailako ikasle guztiak ari dira parte hartzen, 250 bat ikasle guztira.

ahotsak.eus PROIEKTUA izan da 2018an Abbadia saria saria eskuratu duen elkarte. Deba Eskualdeko Ahozko Ondarea eta hizkerak jasotzeko asmoz martxan jarritako Deba Eskualdeko Ahotsak proiektuan du hastapena Ahotsak.eus-ek. Bailarako herrietako kultura tradizionala eta hizkerak jasotzea eta hedatzea zuen helburu, baina Gipuzkoa osora hedatzen hasi zen eta, gero, Euskal Herrira.

Bestalde, Urriaren 26an Andoainen egindako ekitaldian Rikardo Arregi kazetaritza sariaren 30. urtemuga ospatu zuten eta, "30 urte - 10 mugari" goiburuararekin banatutako sarien artean, **Eibar.org** izan zen "euskarazko kazetaritzaren historia garaikidea zedarritu duten hamar eragileetako bat".

Hamaika egun berezi bizi izan genituen azaroaren 23tik abenduaren 3ra. **Euskaraldiak** hizkuntza ohiturak astindu zituen egun horietan eta, garrantzitsuen, bere eragina nabari da oraindik. 200.000 lagunetik gora hartu zuten parte Euskaraldian (Eibarren 3.700 lagunetik gora) eta are gehiago izan dira egun horietan jasotako bizipenak.



2018ak denetik izan du, baita lurretik kanpora ere

I. MUNDU GERRA AMAIERAREN MENDEURRENA bete da aurten, baina momentuz amaierarik ez duen gerra Siriakoa da. Borrokan hasi eta amaitu du urtea Asiako herrialdeak. Euskal Herrian, ordea, sasoi baketsua bizi dugu. **ETAk 60 urteko ibilbideari ofizialki amaiera** eman dio eta Gatazkaren Konponbidea Aitzinatze Nazioarteko Topaketa egin zen Kanbon, Euskal Herriko gatazka konpontzen laguntzeko helburua zuen biltzarra. Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak, bestalde, Espainia Portu eta Sarasola ETAkideen torturen auzian 50.000 euro ordaintzera zigortu zuen.

Gure Esku Dago mugimenduak Donostia, Bilbo eta Gasteiz batu zituen **Erabakitze Eskubidearen Aldeko Giza Katearekin**. 175.000 parte-hartzailek lotu zituzten EAEko hiriburuen arteko 201,9 kilometroak. Euskera batuak, bestetik, 50 urte bete ditu aurten.

Aurten utzi digutenen artean Joxean Artze idazlea; Jose Maria Iñigo kazetari bizkaitarra eta Antonio Mercero zinema zuzendari gipuzkoarra; Stephen Hawking britainiar fisikari eta astronomoa; George eta Barbara Bush; Samir Amin ekonomialaria; Charles Aznavour, Aretha Franklin eta Montserrat

Caballe abeslariak; Kofi Annan NBEko idazkari nagusia eta Bakearen Nobel Saria; Bernardo Bertolucci zinemagilea; eta Stan Lee komikigilea daude.

2017an bezala, **Katalunian** mugimendu handia egon zen urte osoan zehar. Martxoan Carles Puigdemont presidentea atxilotu zuten Alemanian, maiatzean Quim Torra izendatu zuten presidente eta irailaren 11n milioi bat lagun inguru irten ziren kalera 'Kataluniako errepublika egin dezagun' goiburuarekin.

Espainiako Diputatuen Kongresuan **Mariano Rajoyren aurkako zentsura mozioa** bozkatu zen eta Pedro Sanchez izendatu zuten Espainiako presidente berria.

Frantzia **Jaka Horiak** kalera irten dira eta protesta handiak egin dituzte, eta San Pedro Sulan (Honduras) milaka lagun ere errepidera irten ziren eta Amerikako Estatu Batuetarako bidea hartu zuten **Migratzaileen Karabana** osatuz.

11-16 urte bitarteko hamabi mutil eta beraien begiralea **Thailandiako Tham Luang leizean** harrapatuta gelditu ziren. Denak atera zituzten bizirik, baina urpekari militar bat hilik suertatu zen erreskate operazioaren prestaketetan.



Richter eskalako 7.5 graduko lurrikara eta tsunamia jasan zituen Indonesiako Sulawesi uharteak.



Milaka lagun abiatu ziren Erdialdeko Amerikatik AEB-ra, baina momentuz ez dute azaroen mugaz zeharkatu.



Insight zunda Martera iritsi zen planeta gorria barrutik aztertzeko asmoz.



Thailandiako 12 umek eta euren begiraleek bi aste baino gehiago pasatu zituzten Tham luang leizean harrapatuta.



Jaka horiek protesta handiak egin dituzte Emmanuel Macron Frantziako presidenteari hartutako neurrien aurka.

Greziako **Atika eskualdean sute ikaragarriak** piztu ziren, guztira 96 pertsona hil eta mila eraikin baino gehiago suntsitu ziren. **Leslie urakanak** Europarako bidea hartu zuen eta Okzitaniako Carcasona inguruko herrietan eragindako uholdeen ondorioz gutxienez hamabi pertsona hil eta zortzi zauritu ziren. **Indonesiako Sulawesi uharteetan** 1.200 lagunetik gora hil ziren lurrikara baten ondorioz. Guatemalako **Fuego sumendiaren** erupzioaren ondorioz 110 lagun hil ziren. Eta Antartikan inoizko temperatura baxuena erregistratu zen, **98,6 °C zero azpitik**.



Eliud Kipchogek maratoi marka berria ezarri zuen Berlinen. Moskuan, aldiz, Frantziako foball selekzioak Munduko Kopa irabazi zuen.

Zerura begira, **2010 WC9 Apolo asteroidea** lurretik Ilargiaren distantzia erdira igaro zen eta **InSight zunda** Marteko Elysium Planitian ezarri zen. Planeta horren datu geodesikoak eskuratzea du helburu. Beste planeta batetik etorritakoa **Eliud Kipchoge** da. Kenyar atletak munduko maratoi marka egin zuen Berlingo maratoian, 2:01:39ko denborarekin. Pyeongchangen (Hego Korea) **Neguko Joko Olinpikoak** jokatu ziren eta **Foballeko Munduko Txapelketan** Frantziak altxatu zuen garaikurra Moskuko zerura; eta Ligako sailkapenean, historian lehenengo aldiz, **Eibar KE** izan zen euskal talderik onena.

FM Funeraria·Ehortzetxe
Mugica

EIBAR
Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR
Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean
Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea
GRUPO Funeuskadi

JOSE LUIS ARRIOLA GUIASOLA

(Josefa Baskaranen alarguna)



2018-XII-20an hil zen

Gu txikiak ginenean mendira batera joaten Amama ta Aitxitzarekin udak bereziak ziren Gabonak familiartean kantuz kartetan jolasten Zuen begirada beti gure bizitza babesten

Lagunarteko kedadek garrantzia handia zuten Amama gaixo zenean maitasun osoz laguntzen Azken hilabete hauetan gure maitasuna hartzen Orain Zeruan zaitugu Amamarekin gozatzen

EIBARKO KIROL SARIEN XXIV. edizioa

Abenduaren 31n, astelehenean, ...eta kitto! astekariak antolatzen duen Eibarko Kirol Sarien 24. edizioak hitzordua izango du Eibarko kirol munduarekin.

Coliseoan, eguerdiko 12.00etan hasiko den ekitaldian, kirol-modalitate bakoitzean izendatutako kirolariek euren saria jasoko dute. Modalitateei dagokienez, 27 sari banatuko dira eta, horiez gain, sustapen saria, euskarakoa eta ohiko sari berezia izango dira. Guztira, beraz, 30 sari. Eibartarroi ekitaldira joateko gonbitea egiteaz gain, parte hartu duten kirol talde guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Zorionak irabazleei! Eta baita gure herriko kirol-taldeei ere, urte guztian egiten duten lanarengatik.

SARI BEREZIA



Davide Cerchi

Urbat IKE

EUSKERA SARIA



Doroteo Urkia

Asola Berri

ARKU TIRAKETA



Oier Luengo

Urko Arkulariak Kluba

ATLETISMOA



Markel Gutierrez

Eibarko Klub Deportiboa

AUTOMOBILISMOA



Anton Beroiz

Escuderia Eibar

ERRUGBIA



Lucia Moya

Avia Eibar Rugby Taldea

ESKIA



Ilazki Chacon

Eibarko Klub Deportiboa


ESKUBALOIA



Senior boskotea

Eibar Eskubaloia

FOBALLA



Jose M^a Arrizabalaga

Eibar Kirol Elkarte

GIMNASIA ERRITMIKOA



Oinarri Kadete Taldea

Ipurua Gimnasia Erritmikoa

GOLFA



Asier Gonzalez

Eibar Golf Pitch & Putt

HERRI KIROLAK



Hodei Ezpeleta

Eibarko Euskal Jokoak

HIRU TXIRLO



Josean Blanco

Asola Berri

IGERIKETA



Ruben Torres

Eibar Igerixan

abenduak 31, astelehena, 12.00etan, COLISEOAN

JUDO



Mikel Txakartegi

Judo Kalamua

JUGGER



Martin Aranburu

Arima Galduak

KARATEA



Indar Gonzalez

Jator Gimnasioa

MENDIA



100 Mendi Ederrenak

Eibarko Klub Deportiboa

PILOTA



Mikel Azkargorta

Eibarko Klub Deportiboa

SASKIBALOA



O. Arriola/L.C. Etxeberria

Avia Eibar Saskibaloia

SILBESTRISMOA



Alberto Zarzosa

Eibarko Karnaba Zaleak

SQUASH



Miguel Cabanillas

Eibarko Klub Deportiboa

TENISA



Lur Ibartutxi

40x15

TIRO OLINPIKOA



Lorenzo Moya

Club Tiro Dinbi-Danba

TRIATLOIA



Moises Altuna

Delteco Eibar Triatloi Taldea

TXIRRINDULARITZA



Mikel Mujika

Eibar Energia Debarrena

WATERPOLOA



Basterrika/Egidazu/Unzeta

Urbat IKE

WU-SHU



Andoni Morgade

Ttatt Gimnasioa

XAKEA



Aitor Beorlegi

Eibarko Klub Deportiboa

SUSTAPENA



CDR Bizikletak

Txirrindularitza



MOHAMED FADEL TALEB MOHAMED, SAHARA:
"Euskara lehen aldiz entzun nuenean harrapatu egin ninduen"



GITA DULAL, NEPAL:
"Iaz Nepalera bueltatu nintzen, pozgarria izan zen, baina Eibarrera itzuli nahi nuen"



JESUS DAVID RIOS, KOLONBIA:
"Ez dakizu zeinen gogorra den hainbeste denboran amarengandik hain urrun bizitzea"



LEO FERREIRA, BRASIL:
"Hona etortzea erabaki nuenean ama negarrez hasi zen, ezin zuen sinetsi"



GHITA OURDI, MAROKO:
"Segituan sentitu nintzen eibartar"



VIVIANE STRAUB, ALEMANIA:
"Umeak eta helduak, jatorriz eibartarrak eta kanpokoak... guztion elkarbizitza polita da"



BINETA MBAYE CISSE, SENEGAL:
"Senegalgo eta hemengo bizimoduak zeharo ezberdinak dira"



ALICE WOOD, BRITANIA HANDIA:
"Inon ez naute hemen bezain ondo hartu"



HOUDA EL KHAYATI, MAROKO:
"Euskal Herriko kultura barrutik bizi dut"



CARLOS TRUKO, EL SALVADOR:
"Bisitan etorri eta gaur egunera arte geratu naiz Euskal Herrian"



SANDRA ROCHA, BRASIL:
"Hasieran Brasilera bueltatzeko zorian egon nintzen"



MARLENE ROSARIO, VENEZUELA:
"Euskaldunek ondo egiten dute dantza, baina aldakak soltatu behar dituzte"



PATRICK CLAVEL, FRANTZIA:
"Frantziako lagunak datozenean liluratuta geratzen dira hemengo bizimoduarekin"



IVAN MAKARENKO, UKRAINA:
"Hemen badakizue ondo bizitzen; nahiz eta lan asko egin, den-dena ez delako lana"




BENITA DE LOS SANTOS, DOMINIKAR ERREPUBLIKA:
"Turistek bakarrik gozatzen dute Dominikar Errepublikan daukagunaz"



ADAMA THIAM, SENEGAL:
"Semea errealezalea da, baina Eibarko zalea egiteko konbentzitzen ari naiz"

eguraldia (EUSKALMET.NET)



Gabon Zahar Feria ELGOIBARREN

Aurten ere nekazaritza eta abeltzaintza feria tradizionala egingo dute Elgoibarren urteko azken zapatuan, abenduaren 29an. Ehun saltokitik gora jarriko dira bertako produktuak erakutsi eta saltzeko, goizeko 8:30etatik aurrera. Baserritarrek Kalegoen plazan egongo dira eta Bolatokiko parkean, Lekueder eta Kalebarren plazan, berriz, abereen erakusketaz gozatzeko aukera izango da. Maalako parkean artisauak egongo dira (10:00etatik 14:30era) eta Aita Agirre plazan, 11:00etatik 14:30era, falkoneria erakustaldia egingo dute. Eguna girotzen, Baltzola Anaiak, Elgoibarko Kale Kantariak, erromeria... ibiliko dira. Gazta Lehiaketa ere egingo da, parrillan erretako Eusko Labeldun haragi pintxoak eta taloak eskainiko dituzte eta parrokiako Jaiotza mekanikoa egun guztian zehar ikusi ahal izango da.

Olentzeroren kalejira ERMUAN

Herri guztietan kalejiran ibili eta gero, abenduaren 31an bigarrenenez joango da Olentzero Ermura, Txindurri taldearen eskutik kalejira egitera. Herriko kaleetatik ibiliko da Olentzero, 18:00etatik aurrera.

Zoro Feria DEBAN

Betiko moduan, urteko lehen zapatuan ospatuko dute, hau da, oraingoan urtarrilaren 5ean. Egun osoko egitarauan, azoka, dantzak eta idi-demak izango dira, musikaz alaituta.

hildakoak

- Jose Luis Arriola Gisasola. 86 urte. 2018-XII-20.
- Jose M^a Arriola Idiakez. 90 urte. 2018-XII-20.
- Mikel Belategi Irazabalbeitia. 64 urte. 2018-XII-21.
- Jaime Ariznabarreta Larrañaga. 79 urte. 2018-XII-22.
- Gonzalo Garaioa Aranzabal. 58 urte. 2018-XII-23.
- Manuel Larrabeiti Etxaburu. 87 urte. 2018-XII-25.
- Maritxu Arruabarrena Larrañaga. 93 urte. 2018-XII-25.
- Jose Luis Frias Leibar. 88 urte. 2018-XII-25.

jaiotakoak

- Iker Astigarraga Gomez. 2017-XII-15.
- Paul Ferreiro Vigara. 2017-XII-16.
- Marina Aizpun Sarria. 2017-XII-18.
- Lea Sanchez Lasagabaster. 2017-XII-18.

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

8	7	2	4	6	5	9	1	3
1	9	6	2	7	3	4	5	8
4	3	5	8	9	1	6	7	2
7	5	8	3	4	9	2	6	1
3	6	4	1	2	7	5	8	9
9	2	1	6	5	8	3	4	7
5	4	9	7	1	2	8	3	6
6	8	7	9	3	4	1	2	5
2	1	3	5	8	6	7	9	4

			7			8
	3	9	8	5	1	6
	8					5
	1	4		2		
	7		1		2	
		3		9	5	
	4				6	
	3	5	6	4	1	9
1			5			

farmaziak

- Barixakua 28
 EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Zapatua 29
 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Domeka 30
 EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Astelehena 31
 EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Martitzena 1
 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Eguaztena 2
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 3
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 4
 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Zapatua 5
 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Domeka 6
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Astelehena 7
 EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Martitzena 8
 EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Eguaztena 9
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguena 10
 EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Barixakua 11
 EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)

GAUEZ BETI - 2018AN-
 Lafuente (Sostoarren, 10)

GAUEZ BETI - 2019AN-
 Zulueta (San Agustin, 5)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol. Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak).....699 37 75 20

Barixakua 28

EIBART AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30.
 Eibart Gabonetako 14.
 artisau-azoka. Untzagan.

ASTELENA GABON PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30.
 3 euro (EMGI bonoarekin doan). Astelena frontoian.

GABONAK AMAÑAN

19:00. Bierzoko produktu-dastaketa, Jantaedanen eskutik. Amañan.

Zapatua 29

EIBART AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30.
 Eibart Gabonetako 14.
 artisau-azoka. Untzagan.

ASTELENA GABON PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30.
 3 euro (EMGI bonoarekin doan). Astelena frontoian.

GABONAK AMAÑAN

11:00. Salda eta txorizoa, Amaña es la Cañaren eskutik.
 17:00. Ipuin-kontalaria, Amesti tabernaren eskutik. Amañan.

Domeka 30

EIBART AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30.
 Eibart Gabonetako 14.
 artisau-azoka. Untzagan.

Erakusketak

Abenduaren 31ra arte:

- PEDRO ARRIOLAREN “PAINE PARK” ARGAZKIAK (El Ambigú)
- “KALEKO ARGAZKIAK BILBON” (“STREET PHOTOGRAPHY EN BILBAO”) (Portalea jatetxea eta Depor)

Urtarrilaren 5era arte:

- KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAREN “PAISAIA” (Portalea)
- J.A. PALACIOSEN “HARRIA” ARGAZKIAK. (Portalea)

Astelehena 31

EIBART AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30.
 Eibart Gabonetako 14.
 artisau-azoka. Untzagan.

ASTELENA GABON PARKEA

11:00/14:00. 3 euro (EMGI bonoarekin doan). Astelena frontoian.

KIROLKITTO!

12:00. XXIV. Kirolkitto! Kirol-sari banaketa ekitaldia. Coliseoan.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatuta eta pentsiodunen kontzentrazioa, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan (udaletxe parean).

GABONAK AMAÑAN

12:00. Poteo-kiskilla-cava, Amesti tabernaren eskutik.
 16:30. San Silbestre Txiki.
 19:00. Triki-poteoa. Amañako tabernen eskutik. Amañan.

SAN SILBESTRE

16:15. Herri-lasterketaren XXVIII. edizioa. Umeen lasterketaren hasiera.
 16:30. Helduen lasterketaren hasiera. Aixolan.

Martitzena 1

GABONAK AMAÑAN

08:30. Urkora igoera, Amañatik.
 12:00. Poteo berezia, Amañako tabernen eskutik. Amañan.

URKORA IGOERA

09:00. Urteberriari ongietorria Urkon. Irteera Depor paretik
 10:30. Talde-argazkia Klub Deportiboaren eskutik.

GABONAK AMAÑAN

09:00. Urte berriari ongietorria emateko, Depor paretik abiatuta.
 10:30. Talde argazkia Urko puntan. Klub Deportiboaren eskutik.

Eguaztena 2

EIBART AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30.
 Eibart Gabonetako 14.
 artisau-azoka. Untzagan.

ASTELENA GABON PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30.
 3 euro (EMGI bonoarekin doan). Astelena frontoian.

Eguena 3

EIBART AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30.
 Eibart Gabonetako 14.
 artisau-azoka. Untzagan.

ASTELENA GABON PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30.
 3 euro (EMGI bonoarekin doan). Astelena frontoian.

GABONAK AMAÑAN

11:00. Garagardo dastaketa, Azkena tabernaren eskutik. Amañan.

ANTZERKIA

17:00. “Inondik inora” (Benetan be), euskaraz, 4 urtetik gorakoentzat. 5 euro. Coliseoan.

Barixakua 4

EIBART AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30.
 Eibart Gabonetako 14.
 artisau-azoka. Untzagan.

ASTELENA GABON PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30.
 3 euro (EMGI bonoarekin doan). Astelena frontoian.

GABONAK AMAÑAN

17:00. Bihar taldearen txotxongilo-ikusketak, Amañako tabernen eskutik.
 18:00. Umeendako txokolate-jana, Amaña es la Cañaren eskutik. Amañan.

JUBILATUAK

17:30. Txokolatea eta oparien zozketa. Beheko Tokia jubilatuen etxean.
 18:00. Txokolatea eta oparien zozketa. Untzagako jubilatuta etxean.

Zapatua 5

EIBART AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30.
 Eibart Gabonetako 14.
 artisau-azoka. Untzagan.

GABONAK AMAÑAN

11:00. Salda eta txorizoa.
 17:00. Untzagara jeistea, Kabalgata ikusteko. Amaña es la Cañaren eskutik.

ERREGEEN KABALGATA

17:00. Ipurua Dantza Garaikidea, Eibarko Balleta eta Ipurua Gimnasia taldeen ikuskizuna. Kiroldegian.
 19:00. Hiru Erregeen Kabalgata, Eibarko Musika Bandak lagunduta. Untzagatik abiatuta. Amaieran umeei harrera, udaletxeko patioan.

Domeka 6

GABONAK AMAÑAN

18:00. Gabonetako arbola itzaltzea, Amaña es la Cañaren eskutik. Amañan.

Astelehena 7

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatuta eta pentsiodunen kontzentrazioa, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan (udaletxe parean).

Martitzena 8

HARIXA EMOTEN

19:00. Idazlearekin Harixa Emoten euskerazko irakurketa kluba: Maixa Zugastiren “Ahotsak eta itzalak”. Portalean.

Eguaztena 9

BISITA

17:00. Doakoa ata gidatua, euskeraz (gaztelera, 18:30ean). Eibarko Armagintzaren Museoa.

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Ongi etorri, JON Gabirondo Charola, eta patxo haundi bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, URKO!, hillaren 31n 2 urte beteko dozuz-eta! Ondo pasa eta lartan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak MALEN!!!, domekan 7 urte beteko dozuzelako. Kostata, baiña heldu da eguna! Asko maite zaitugu.



Zorionak, JARE, zure 3. urtebetetzian! Segi eder, alai eta jator! Patxo potolua famelixa guztiaren eta, batez be, Patxi eta Jonen partez.



Zorionak, MANEX!!!! Atzo 8 urte bete zenduazen eta. Musu haundi bat etxeko guztiaren partez.



Zorionak, BITTOR! Gaur 3 urte betetzen dozuzelako! Oso ondo ospatu eta patxo haundi bat famelixaren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

29an: 19:45

30ean: 20:00

"Spider-Man: Nuevo Universo"

Zuzendaria: Bob Persichetti



(1 ARETOAN)

29an: 17:00

30ean: 17:00

"El regreso de Mary Poppins"

Zuzendaria: Rob Marshall



(2 ARETOAN)

28an: 20:30(antzokian)

29an: 17:00

30ean: 17:00

"Dantza"

Zuzendaria: Telmo Esnal



(2 ARETOAN)

28an: 20:30

29an: 22:30(1 aretoan)

30ean: 20:00

"Miamor perdido"

Zuzendaria: Emilio M. Lázaro



(2 ARETOAN)

30ean: 19:45, 22:30

"Yuli"

Zuzendaria: Iciar Bollain



(ANTZOKIAN)

28an: 20:30(1 aretoan)

29an: 16:30, 19:30, 22:30

30ean: 17:00, 20:00

"Aquaman"

Zuzendaria: James Wan



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Erreforma osoa behar duen pisua erosiko nuke Eibarren. Tel. 670-793312.

1.2. Errentan

– 3 logelako pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 639-611454.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Isasi, Ipu-
 rua edo Legarre inguruan. Erostea aukera-
 rekin. Tel. 646-369330.
 – Eibarko gizon bat konpartitzeko pisu bila
 dabil. Tel. 634-235189.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Isasi, Ipu-
 rua edo Legarre inguruan. Erostea aukera-
 rekin. Tel. 646-369330.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Lokala alokagai J.A. Gisasola kalean,
 trasteleku moduan erabiltzeko. Tel. 636-
 906921.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak
 egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 648-
 406654.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo
 umeak zaintzeko. Tel. 622-677230.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-
 tzeko. 5 urteko esperientzia. Tel. 604-
 149786.
 – Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko.
 Autoa du garraiorako. Tel. 620-853295.
 – Emakume arduratsua eskaintzen da
 nagusiak zaintzeko. Tel. 603-874953.
 – Emakume arduratsua eskaintzen da
 nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiki-
 tak egiteko Tel. 631-925525.
 – Emakumea eskaintzen da etxeko lanak
 egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko.
 Tel. 622-504711.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo
 umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.
 Tel. 631-283447.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-
 tzeko eta etxeak garbitzeko. Orduka. Espe-
 rientziarekin. Tel. 667-060292.
 – Gizonezkoa eskaintzen da mugikortasun
 urriko pertsonak zaintzeko. Tel. 632-
 518268.
 – Laguntzaile tituludun emakumea eskain-
 tzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak.
 Tel. 631-506763.
 – Emakumea eskaintzen da edozein lan
 egiteko. Tel. 631-113450.
 – Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak
 edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egi-
 teko. Tel. 632-993066.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-
 tzeko. Erreferentziak. Tel. 600-730447.
 – Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zain-
 tzeko. Erreferentziak. Tel. 600-730253.
 – Emakumea eskaintzen da umeak zaintze-
 ko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-
 532426.
 – Emakume arduratsua eskaintzen da
 nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko
 lanak egiteko. Tel. 612-574783.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-
 tzeko, garbiketarako egiteko eta tabernan lan
 egiteko. Orduka eta asteburuetan. Tel. 632-
 506382.
 – Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko.
 Tel. 689-798284.
 – Emakumea eskaintzen da garbiketarako egi-
 teko (tabernak, etxeak, soziedadek) eta
 umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 675-
 965130.
 – Emakumea eskaintzen da garbiketarako egi-
 teko (tabernak, etxeak, soziedadek) eta
 umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 605-
 598999.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-
 tzeko. Esperientzia. Tel. 690-134485.
 – Neska eskaintzen da edozein lanetarako.
 Astelehenetik barixakura: 11:30-16:00. Tel.
 693-673904.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo
 umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko.
 Tel. 635-189294.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo
 umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko.
 Tel. 631-592306.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-
 tzeko. Tel. 688-777600.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-
 tzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.
 632-921780.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-
 tzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Tel.
 632-280811.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo
 umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.
 Tel. 602-314781.

4.2. Langile bila

– Pertsona behar da tabernan lan egiteko.
 Tel. 695-690784.
 – Emakume euskalduna behar da arratsal-
 dez umea zaintzeko. Tel. 628-330634 eta
 630-434238.
 – Kamarera/o behar da Eibarko taberna
 batean. Astelehenetik zapatu arratsaldera.
 Esperientziarekin. Bidali curriculum-a Anar-
 di tabernara.
 – Kamarera/o behar da Eibarren. Esperien-
 tziarekin. Tel. 685-286303.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko
 Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko kla-
 seak ematen dira. Banakako klase egoki-
 tuak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez
 ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Ponyak saltzen dira. Tel. 659-688703.

6.2. Eman

– Katakumeak oparitzen dira. Tel. 628-
 502347.

ORBEA HAURRESKOLA



Bittor Sarasketa, 11

943 20 03 84 HaUrreskoLak

orbea.eibar@haurreskolak.eus

URTE BERRI ON!!



Cambridge Assessment English

Authorised Exam Centre

AUTHORISED CENTRE ES 438

MARTXOKO DEIALDIA
AZTERKETAK Eibarren, Arrasaten eta Durangon

MATRIKULAK
Urtarrilaren 7tik 25era

AZTERKETA DATA

PET AZTERKETA OSOA Martxoak 16 (larunbata)
FCE FS AZTERKETA OSOA Martxoak 16 (larunbata)
CAE AZTERKETA OSOA Martxoak 16 (larunbata)

INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83	DEBA:	Akabi	943 19 16 79
	Idiomaster	943 79 07 84		North Street English	652 44 86 46
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53	DURANGO:	San Jose Maristak Ikastetxea	94 681 00 58
BILBO:	Capital Languages	94 445 73 04	MENDARO:	Akabi	943 75 50 55
EIBAR:	Link Idiomas	943 20 39 59	MARKINA:	Chatterbox	94 616 96 39
	Target Schools of English	943 20 01 08		Lea Artibai Ikastetxea	94 616 90 02
ERMUA:	Akerlei	943 17 66 32	ELORRIO:	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
ELGOIBAR:	Kensington School of English	943 74 02 36	BERRIZ:	Speak up	94 622 52 94
	Key Academia de Inglés	943 74 30 44	ZUMAIA:	Golden Gate	943 86 50 20
OÑATI:	Sounds Great	943 78 20 91	MUTRIKU:	Gogoz	943 60 43 58

Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure
laborategian diseinatzen dugu.

Urte Berri On!



bista eder
clinica dental - horts klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar
www.bistaeder.es